

HAURREN MUNDUKO EGUNA 2025

DÍA MUNDIAL DE LA INFANCIA 2025

1989ko azaroaren 20an Nazio Batuek Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa onartu izana mugarrria izan zen eta haurrei buruzko ikuspegia eraldatu zuen gure gizarteetan. Haurrak eta nerabeak zaintzaren hartzaile soil izateari utzi eta eskubidedun bihurtu ziren, ahotsaren, agentziaren eta eraldatzeko gaitasunaren jabe. Euskadin, Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legea bat dator Konbentzioaren printzipioekin, zeharkako begirada integral batetik, eta bide-orri argi bat ezartzen du euskal erakunde publiko guztientzat, haur eta nerabe bakoitzaren eskubideak egia bihurtzeko duten erantzukizunari dagokionez.

Baina, gainera, urtero, data honek haur guztien oinarritzko eskubideak bermatzeko erantzukidetasuna eta konpromiso kolektiboa gogorarazten dizkigu, haien ongizatea, babesa eta haien parte-hartze aktiboa gizartean sustatze aldera. Toki-erakundeek, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, funtsezko zeregina dute haurrentzako ingurune seguruak, inklusiboak eta babesleak sortzeko. Horregatik, beharrezkoa da Haurren Mundu Eguna ospatzea, lortutako aurrerapenak aitortzeko ez ezik, erronkak agerian jartzeko ere: mundu osoko haurren ongizatea eta garapena mehatxatzen duten erronka iraunkorrak, azaleratzen ari direnak, eta kasu batzuetan, bereziki gatazka- eta gerra-testuinguruetan, handitzen doazenak.

Haurren eskubideak bermatzea ez da soilik legezko betebeharrak, baizik eta agindu etiko bat. Ez da borondatez heldu beharreko zerbait, ez baitugu ahaztu behar, haien eskubideak bete daitezen, konpromisoa, erantzukizuna eta lehentasuna eskatzen dituela. Haur guztiek merezi dute ingurune seguru eta osasungarri batean haztea, beren eskubideak bermatu, aukerak bultzatu, eta beren parte-hartzea sustatuko duena gizartean. Tokiko erakundeetatik, herritarrekiko dugun hurbiltasun-rola kontuan hartuta, ahaleginak areagotu behar ditugu haur bakar bat ere atzean

La aprobación de la Convención sobre los Derechos del Niño/a por parte de Naciones Unidas el 20 de noviembre de 1989, fue un hito que transformó la visión de la infancia en nuestras sociedades. Los niños, niñas y adolescentes dejaron de ser considerados meros receptores de cuidados para convertirse en sujetos de derechos, con voz, agencia y capacidad de transformación. En Euskadi, la Ley 2/2024, de Infancia y Adolescencia se alinea con los principios de la Convención desde una mirada transversal e integral, que supone una hoja de ruta clara para todas las instituciones públicas vascas en su responsabilidad de hacer realidad los derechos de cada niño, niña y adolescente.

Pero además cada año, esta fecha nos recuerda la corresponsabilidad y el compromiso colectivo de garantizar los derechos fundamentales de todos los niños y niñas, promoviendo su bienestar, protección y participación activa en la sociedad. Las Entidades Locales, como instituciones más cercanas a la ciudadanía, tienen un papel esencial en la creación de entornos seguros, inclusivos y protectores para la infancia. Por ello es necesario conmemorar el Día Mundial de la Infancia, no solo para reconocer los avances logrados, sino para poner en evidencia los retos persistentes, emergentes, y en algunos casos crecientes, que amenazan el bienestar y el desarrollo de la infancia en todo el mundo, especialmente en contextos de conflicto y guerra.

Garantizar los derechos de la infancia no es solo una obligación legal, sino un imperativo ético. No es una cuestión de voluntariedad, sino de compromiso, responsabilidad y prioridad en el cumplimiento de sus derechos. Cada niño y cada niña merece crecer en un entorno seguro, saludable, garante de sus derechos, impulsor de oportunidades y participativo. Dado nuestro rol de cercanía con la ciudadanía, desde las instituciones locales debemos redoblar esfuerzos para que ningún niño o niña se quede

gera ez dadin, haurrei parte hartzeko espazioak eskainita eta haien eskubideak bultzatuta.

Haurren Mundu Egun honetan, gure herrian eta gure ingurunean haurrekin dugun konpromisoa berresten dugu, baina baita munduko beste leku batzuetako haurrekin dugun konpromisoa ere, haur guztiak, munduko edozein lekutan, babestea eta entzutea funtsezkoa baita gaur eta bihar.

Arduradun politiko gisa geure buruari galdetu behar diogu haurren eskubideak babesteko, sustatzeko eta gauzatzeko nahikoa egiten ari garen; baliabide nahikoak bideratzen ari garen; erabakiak hartzen ditugunean haien proposamenak kontuan hartzen ari garen, haurrak eta nerabeak lehenetsunez aintzat hartzen ditugun.

Erronka ugariri egin behar diogu aurre; UNICEFek *Haurren Eskubideen Batzordeari* helarazitako erronkak dira, eta horien aurrean, administrazio publikoko maila guztiek lerrokatuta eta koordinatuta egon behar dute, edozein erabakitan haurren interes gorena lehenesteko. Horretarako, honako hauetan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu:

Pobrezia- eta/edo bazterketa-arriskuan dauden haur eta nerabeak lehenestea:

Europako Haur Bermearekin lerrokatutako neurriak ezartzea —gure autonomia-erkidegoan Euskadiko Haur Bermearen Estrategiaren bidez (EGIE 2030) garatzen ari dena— haurren pobrezia-tasa gero eta handiagoari heltzeko. Izan ere, haurrentzat bideratutako diru-sarrerari dagokionez, adierazle horrek dio 2024an % 10,2 izatetik 2025ean % 18,2ra igo dela Euskadin haien pobrezia-tasa.

Haur Hezkuntzako 0 eta 3 urte bitarteko lehen zikloa unibertsalizatzea eta plaza nahikoz hornitzea, belaunaldien arteko pobrezia-aren zikloa hausteko neurri eraginkor gisa.

Haur guztiei kultura-, aisia- eta kirol- instalazio eta -jardueretarako sarbidea erraztea, familiei kostuen oztopoak gainditzeko aukera emango dien sistema baten bidez, esate baterako.

atrás, para ofrecer espacios de participación y para impulsar los derechos de la infancia.

En este Día Mundial de la Infancia, reafirmamos nuestro compromiso con la infancia, en nuestra localidad y entorno, pero también con la infancia en otros lugares del mundo, porque proteger y escuchar a la infancia, a todas las infancias, en cualquier lugar del mundo, es crucial hoy y mañana.

Como responsables políticos debemos preguntarnos si estamos haciendo lo suficiente para proteger, promover y realizar los derechos de la infancia; si estamos destinando recursos suficientes; si estamos teniendo en cuenta sus propuestas cuando tomamos decisiones, si consideramos a los niños, niñas y adolescentes de manera prioritaria.

Son muchos los desafíos a los que debemos hacer frente; retos trasladados por parte de UNICEF al *Comité de los Derechos del Niño* y ante los cuales, todos los niveles de la administración pública deben estar alineados y coordinados, a fin de priorizar el interés superior del niño o niña en cualquier decisión. Para ello nos comprometemos a trabajar en:

Priorizar a los niños, niñas y adolescentes en riesgo de pobreza y/o exclusión:

Implementar medidas alineadas con la Garantía Infantil Europea, que en Euskadi se desarrolla a través de la Estrategia de Garantía Infantil de Euskadi 2030 (EGIE 2030), a fin de abordar la elevada tasa de pobreza infantil creciente como evidencia el indicador de la tasa de pobreza de ingreso para la infancia, el cual ha pasado de 10,2% en 2024 a 18,2% en 2025 en Euskadi (ECV).

Universalizar y dotar de plazas suficientes el primer ciclo de educación infantil de 0 a 3 años, como una medida eficaz para romper el ciclo de pobreza intergeneracional.

Facilitar el acceso efectivo de toda la infancia a instalaciones y actividades culturales, de ocio y deportivas, mediante un sistema que permita superar a las familias barreras de costes, por ejemplo.

Reducir las barreras que se encuentra la infancia migrante y otros colectivos

Haur migratzaileek eta beste kolektibo kaltebera batzuek beren oinarritzko eskubide sozialak baliatzeko dituzten oztopoak murriztea, tartean hezkuntza edo osasun-arreta, ongizate emozionala barne, eta haien estigmatizazioari aurre egitea. Mugak zeharkatzean haurrek beren eskubideak ez galtzeko printzipioa indartzea.

Haurrentzako bizitoki egoki bat bermatuko duten ekimenak sustatzea, baita haurren ongizateari lehentasuna emango dion hiri-plangintza bat ere.

Haurren eta nerabeen iritzia entzutea:

Tokiko proposamenak eta ikuspegia kontuan hartzea. Herritar gisa, funtsezkoa da haien ideiak aintzat hartzea tokiko ingurunea eta plangintza hobetzeko.

Kontuak emateko konpromisoa indartzea, eta horretarako haurren eta nerabeen ideia eta proposamenen gaineko atzeraelikadura jasotzeko guneak irekitzea. Bereziki kontuan hartuko dira haur eta nerabe kalteberenak.

Haurrak babestea:

Ingurune digitaleko arriskuen aurrean babesteko programak eta mekanismoak sustatzea.

Toki-mailako erakunde eta eragile guztien arteko koordinazioa hobetzea, haurren prebentzioa eta babesa erdigunean jarrita, eta Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Erabat Babesteko Lege Organikoa (LOPIVI) benetan abiaraztea, Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legea inplementatuz.

Haurren beharrak aurreikusi, sustatu eta artatzea, osasun mental egokia izan dezaten.

Ingurune seguruak, garbiak eta osasungarriak sustatzea:

vulnerables para acceder a sus derechos sociales básicos, como la educación o la atención en salud, incluyendo el bienestar emocional, combatiendo igualmente la estigmatización. Reforzar el principio según el cual, niños y niñas no pierden sus derechos al cruzar una frontera.

Promover iniciativas que aseguren el acceso a una vivienda adecuada, así como una planificación urbana donde se priorice el bienestar de la infancia.

Escuchar la opinión de los niños, niñas y adolescentes:

Tener en cuenta sus propuestas y su visión a nivel local. Como ciudadanos y ciudadanas, tener en cuenta sus ideas es fundamental para mejorar el entorno y la planificación local.

Reforzar el compromiso para rendir cuentas, abriendo espacios para que niñas, niños y adolescentes, reciban retroalimentación sobre las ideas y propuestas que realizan. Se tendrá especialmente en cuenta niños, niñas y adolescentes con mayor vulnerabilidad.

Proteger a la infancia:

Potenciar programas y mecanismos de protección frente a los riesgos del entorno digital.

Mejorar la coordinación entre todas instituciones y actores a nivel local, poniendo la prevención y la protección de la infancia en el centro, desplegando efectivamente la Ley Orgánica de Protección Integral a la Infancia y la Adolescencia frente a la Violencia (LOPIVI), a través de la propia implementación de la Ley 2/2024, de Infancia y Adolescencia.

Prevenir, promover y atender las necesidades de la infancia a fin de que disfruten de una adecuada salud mental.

Promover entornos seguros, limpios y saludables:



Ciudades
Amigas
de la Infancia

unicef
haur bakoitzarentzat

Haurrentzako mugikortasun seguru eta independentea sustatzeko programak txertatzea, mugikortasun hori bultzatuko duten azpiegitura eta sistemen bidez.

Haurrak ingurune osasungarri eta seguruetan bizi, hazi eta garatzeko neurriak ezartzea. Haien bizitzak, osasuna eta garapen-aukerak babestu egingo dira edozein arriskuren aurrean, kutsadura edo muturreko tenperaturak bezalako ingurumen-kalteen ondoriozkoak.

Incorporar programas para el fomento de una movilidad segura e independiente para la infancia, mediante infraestructuras y sistemas que la fomenten.

Implementar medidas para que niños y las niñas vivan, crezcan y se desarrollen en entornos sanos y seguros. Sus vidas, salud y posibilidades de desarrollo, serán protegidos frente a cualquier peligro a causa de daños medioambientales como la contaminación o temperaturas extremas.

Hautzaroarekin konprometituta edonon:

Bereziki, gatazka-lekuetan bizi diren edo larrialdi-egoerak gainditzeko ari diren haurren eta nerabeen eskubideekiko konpromisoa hartzea. Gazaren kasuan, nazioarteko zuzenbide humanitarioa bermatu behar da, eta ezinbestekoa da aldeek akordioaren baldintzekin bat egitea eta su-etena errespetatu, mantendu eta bake iraunkor batera bideratuko dela bermatzea, eta haurren sufrimendu larriari azkena ematea.

Horregatik, Haurren Munduko Egun honetan, berretsi egiten dugu gizarte bidezkoagoa bat, eskubideduna, ekitatiboa eta haur eta nerabe guztiak babestuko dituen eraikitze konpromisoa.

Comprometidos con la infancia en cualquier lugar:

Especialmente con los derechos de los niños, niñas y adolescentes que viven en lugares en conflicto o se encuentran superando situaciones de emergencia. En el caso de Gaza, se debe garantizar el derecho internacional humanitario, y es imprescindible que las partes se adhieran a los términos del acuerdo y garanticen que el alto el fuego se respete, se mantenga y conduzca a una paz duradera, y ponga fin al grave sufrimiento de los niños y niñas.

Por ello en este Día Mundial de la Infancia, reafirmamos nuestro compromiso con la construcción de una sociedad más justa, con derechos, equitativa y protectora para todos los niños, niñas y adolescentes.

Lekua eta data: LEIDA....., 2025eko azaroaren 18.(a)

En.....LEIDA....., a 18 de noviembre de 2025.


EAJ-PNV


PODEMOS


P.P.


EH BILDU LEIDA


PSE-EE Leida


ALCOTED